



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Leire Bazterrika Loiarte.
Francisco Michelena Celayeta.
Imanol Baleztena Elizalde.
Ezekiel Loiarte Santesteban.
Martxel Elizalde Elizalde.
Pedro Hilario Santesteban Loyarte.

2020eko uztailaren 21ean, 19:00etan, ohiko bilkuran elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Domínguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

Bilera hasi aurretik eta 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3. artikuluaaren arabera, Alkateak azkeneko momentuan euskara sustatzeko diru laguntzen inguruko puntua gai ordenan sartzearen premia azaldu eta bozkatzera deitu du Udalbatzak puntua sartzearen beharra berrets dezan. Udalbatzak **aho batez** onartu du euskara sustatzeko diru laguntzen puntua sartzea gai ordenan.

1. AKTAK ONARTZEA.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko Bilkuretako aktei. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **aho batez erabaki du**:

1.- Aurreko bilkurako aktak onartzea.

2. UDAL ERAIKINEN ERABILERA.

Udalburuak azaldu du alarma egoeraren bueltan berriro ere udal eraikinak erabiltzeko aukera emanen dela (bazkariak, afariak eta urtebetetzeak ospatzeko izan ezik) baina SARS-COV2 gaixotasunaren hedapena saihesteko erabilera hori arautuko da eta eskatzaileek hainbat konpromezu hartu beharko dituzte. Erabiltzaileak sinatu beharreko eskaera orri erdua hurrengo izanen da:

“Zubietako Udalak baimena ematen die hurrengoiei

erabiltzeko:

Jauna/andrea
Jauna/andrea
Jauna/andrea

- Bere izenean
- Hurrengo honen izenean:

-



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

Sinatzaileak ardura hartzen du, bere eta beste erabiltzileen izenean, erabilera bitartean hurrengo baldintza eta segurtasun neurriak betearazteko:

- Gehienezko erabiltzaile kopurua 25 pertsona izanen dira.
- Erabiltzaileek, edozein kasutan ere, maskarila erabili beharko dute.
- Komuna ezin izango da erabili. Behartzekotan, Udaletxe atariaren ondoan dagoen eta publikoa den komuna erabili daiteke.
- Udaletxeak eskuragarri uzten dituen densinfekzio produktuekin eskuak garbitu beharko duituzte erabiltzaileek, estalpean sartu eta estalpetik irten aurretik.
- Erabilitako altzariak desinfektatu beharko dira Udaletxeak eskuragarri uzten dituen produktuekin.

Eta aipaturiko baldintzak beteko direla aitortzeko, goian aipaturiko erabiltzaileak beste guztien izenean eta ardura bere gain hartuz, bitan sinatzen du Zubietako Udalean 2020ko (a)ren (e)an, sinatutako ale bat Udalean eta bestea eskatzailearen eskuetan geldituko delarik.”

Eredua ikusi ostean Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **aho batez onartu du udal eraikinak erabiltzeko aukera berriz ere ematea eta erabilera hori eskatzeko eskabide orria.**

3. AURREKONTU ALDAKETA.

Udalburuak 1/2020 aurrekontu aldaketa zein eta zertarako den azaldu du. Izan ere eta hirigintza aprobetxamenduetatik eratorritako ezohiko kreditu baten eraginez Zubietako Udalak aurreikusi ezin zezakeen diru sarrera bat izanen du eta hori Udal eraikineko estalpeko sukaldea moldatzera bideratu nahi da. Zehazki Kontuhartzailearen txostenean aipatzen den moduan hurrengo diru sarrera partida sortuko da 1-77300 HIRIGINTZA APROBETXAMENDUA/APROVECHAMIENTO URBANÍSTICO 13.000€-koa. Eta diru hori 1-1522-62200 ATERPEKO SUKALDEA BERRITU /RENOVACIÓN COCINA ATERPE deituriko gastuen partidari bideratuko zaio beste 13.000€-tan.

Kontuhartzailearen txostena kontuan harturik Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **aho batez onartu du 1/2020 aurrekontu aldaketa.**

4. EUSKARA SUSTATZEKO DIRU LAGUNTZAK.

Udalburuak azaldu du pasaden urtean bezala eta Malerrekako Mankomunitatearekin elkarlanean 2020an Euskara sustatzeko diru laguntzak eskatuko direla. Diru laguntza aurkezteko azkeneko eguna bihar denez, gaia gaurko bilkuran sartzea beharrezkoa zela aipatu du. Udalburuak bozkatzera deitu eta **Udalbatzak aho batez**



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

onartu du aurten ere Euskara sustatzeko planteatu den programa eta hau aurrera eramateko diru laguntza eskatzea.

5. MOZIOAK.

Udalburuak bi mozio daudela azaldu du.

5.1.- ENDARA BIZIRIK.

Endara Bizirik taldea, Lesakan egin nahi den parke eolikoaren harira sortu den taldea, Udalaren atxikipena eskatzen du, haien ustez ingurumen eta bizimoduan kalte handia ekarriko duen makroproiektu hau gelditzea ezinbestekoa baita ipar mendebaldean halakorik aurrera eramatea ekiditzeko eta beraz lekuko egoera errespetatzen ez duten proiektuak garatzen ez jarraitzeko. Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak hurrengoa **erabaki du:**

Alde 5
Abstentzio 2

- 1.- ENDARA BIZIRIK aurkeztutako atxikipen orria sinatu eta bidaltzea.**
- 2.-ENDARA BIZIRIK aurkeztutako atxikipen orria sinatzeko Alkatea izendatzea Udal ordezkari.**
- 3.- ENDARA BIZIRIK taldeari atxikipenaren berri ematea.**

5.2.- BAZTANGO UDALA: ELIKAGAIAK EKOITZI ETA ERALDATU ETA HORIEK ZUZENEAN- EDO ZIRKUITU LABURREN BIDEZ- SALDU NAHI DITUZTEN ETXALDE TTIPIEN BETEBEHARRAK ARAUTZEA.

Udalburuak azaldu du Baztango Udaletik hurrengo idazkia ailegatu dela.

“Nekazaritza herrikoi eta iraunkorra sustatzeko eta landa eremu bizia ere bai, beharrezkoa da etxaldeeiei aukera desberdinak ematea eta horietako bat lehengaiak eraldatu eta zuzenean saldu aha izatea da. Hori tokiko ekoizpen sistemak eta merkaturatzeko zirkuitu laburrak bultzatuz eta garatuz lortzen ahal da. Horretarako "Pakete higienikoak" lehen sektoreko produktore ttipiei dakartzkien betebeharrak arindu behar dira, azpiegituren alderdian batez ere.

Gaia arautzen duten Europako erregelamenduek ((UE) 2017/625 Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko martxoaren ISeko erregelamendua eta (CE) 2074/2005 Batzordearen 2005eko abenduaren 5eko erregelamendua) Estatuen gain uzten dute elikagaiak ekoitzi, eraldatu eta banatzeko modu tradizionalak baimentzea eta horretarako beharrezkoak diren azpiegituren eraikuntza, diseinua eta hornidurak zein diren finkatzea.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

2010. urtean Nafarroako Parlamentuak salmenta zuzena arautzeko legea onartu zuen (8/2010 Foru Legea, apirilaren 20koa),. Legearen helburua zen salmenta zuzeneko baldintzak malguagoak izatea. Ildo horretan 2014. urtean aipatu legea garatzeko Foru Dekretua onartu zen (107/2014 Foru Dekretua, azaroaren 12koa), baina legeak finkatutako helburuak betetzeko ez da gai izan. Gehiago, aipatu legearen izpiritua kontrako norabidean egin zela erran daiteke.

Horregatik, tokiko ekoizpen sistemak eta merkaturatzeko zirkuitu laburrak bultzatu eta garatzeko arautegi berria behar da. Alderdi hauek bederen bilduko dituen:

Eligaiak kopuru mugatua ekoizte eta zuzenean edo zirkuitu laburren bidez saldu nahi duten ekoizle ttiki edo elaboratzaile agroalimentarioen beheteharrak, obligazioak eta ardura orokorrak ezarri beharko ditu.

Zuzenean saldu nahi duten ekoizle ttikiendako baldintza zehatzak ezarriko ditu.”

Udalburuak bozkatzera deitu du eta **Udalbatzak aho batez onartu du Baztango Udalak onartutako akordiaori atxikitzea eta atxikipen hau Baztango Udalari jakinaraztea.**

6. ESKAERAK.

6.1.- Miguel Mindeguía Labayen jauna Aieletan, Zubietako ehiza postuaren ondoan, dagoen haritza aprobetxatzeko eskaera aurkeztu zuen. Udalbatzak jakin izan du haritza ez dagoela jadanik bertan eta beraz ezin diola haritzaren aprobetxamendua Mindeguía jaunari eman.

7. ALKATE EBAZPENAK.

Alkateak emandako Ebazpenen berri eman du (23/2020. Ebazpenetik 39/2020. Ebazpenera), eta Udalbatza **jakinaren gainean** geditu da.

8. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOAK.

Udalburuak hurrengo gaiei buruz Udalbatza informatu du: Landa Garapeneko Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari egindako oihan aprobetxamendu eskaerak – Josefa Loyarte Elizalde eta Martín Legazcue Santesteban—; Landa Garapeneko Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak emandako oihan aprobetxamendu luzapen baimenak–Maderas Santesteban S.L., José Miguel



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

Tellechea Ochandorena eta Josefa Loyarte Elizalde—; Landa Garapeneko Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari egindako oihan aprobetxamendu luzapen eskaera—Pedro José Hualde Indacochea —; Landa Garapeneko Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak emandako oihan aprobetxamendu baimenak —Juan Perochena Perochena eta Martín Legazcue Santesteban—; Abeltzaintza Ustiattegien Erregistroan izan diren altak- Ignacio María Mariezcurrena Mariezcurrena eta Asier Sistiaga Nieto—; Abeltzaintza Ustiattegien Erregistroan izan diren bajak- Francisco Javier Loperena Elizalde— Kantauriar Isurialdeko Konfederazioak emandako baimena hondakin-urak isurtzeko- Iulen Burguete Álvarez —; Kantauriar Isurialdeko Konfederazioak emandako baimena polizi eremuan eraikitzeko – David Juanicorena Hualde —; Nafar Lansarek zerbitzu anitzetarako zein Errotarako langileak kontratatzeko eman duen diru laguntzaren ebazpenak (1225E/2020 eta 1246E/2020).

9. GALDE-ESKEAK.

9.1.- Francisco Michelena Celayeta zinegotziak aipatu du badirela haritzak erortzeko arriskuan ehiza postuak lotzen dituzten kableen ondoan eta hauek botatzeko aukera dagoela. Eskatzen du guardarekin egon eta gai honi konponbidea ematea.

9.2.- Ernesto Domínguez Olea Alkateak aipatzen du badirela herrian zehar erortzeko arriskuan dauden zuhaitz batzuk. Bi aukera daudela aipatzen du egoera honi aurre agiteko. Lehenengoa bando orokor bat egitea litzateke, jendea abisatuz horrelako zuhaitzen batek kalterik sortuko balu jabearen ardura izanen zela kalte hoiengatik erantzutea. Bestea, arriskuan dauden zuhaitzen jabe bakoitzari banaka jakinaraztea litzateke. **Udalbatzak aho batez erabaki du, bai bandoa helaraztea zein jabe bakoitzari jakinaraztea erortzeko arriskuan dauden zuhaitzen egoera eta hauek erortzearen ondorioak. Gainera guardarekin hitz egin eta hauen inguruan akta prestatzeko eskatzea erabaki da, bando zein jakinarazpenari oinarri teknikoa emateko xedez.**

9.3.- Ernestok berak bigarren gai bat aipatu du, artilearen bilketa. Komenigarria ikusten du bando bat helaraztea artilearen bilketa non, noiz eta zer ordutan izanen den abisatzeko asmoz.

Eta bertzerik ezean, 19:40ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.